

Zientzia eta egia

Jakina, gauzak ez dira hain sinpleak. Anak ondo dioen moduan, poetaren eta idazlearen arteko aldea ez da hain erraza zehazten. Antonio Gamoneda poetak esan izan du beretzat poesia ez dela literatura, aparteko gauza dela. Badira, ordea, poesia gainontzeko literatura genero eta arteekin lotzeko joera dutenak. Neroni hor nengoke Gamonedaren burbuila poetikoan bainoago. Modu aski sinplistan bereizi nuen aurreko *Ttakunean* egiaren eta edertasunaren artekoa. Platonen hartakotik ez da alferrik urte mordoia igaro. Literatura/fikzioa eta zientzia/egia bikote eskematikoak kritika ugari izan ditu urtetan alde guztietatik. Literatura eta poesiaren inguruan mintzatu gara zer edo zer. Zientziaz egin nahiko nuke oraingoan berba. Edo, hobeki esanda, zientzia omen dena jendarteratzeko moduez.

Eduard Punset ia hamabost urte daramatza TVE-n *Redes* zientzia-jendarteratzeko telebista programa egiten. Alderdi Popularraren Espainiako hauteskunde orokorretako lehenengo garaipenarekin batera hasi zen eta bizirik iraun die gorabehera politiko eta telebistako zuzendaritza aldaketei. Ez da gutxi. Gogoan dut Aznarren eldarnio zoro betean TVE ikustea heste-proba dorpea zela. Carlos Davila eta enparauak ziren uhinen jabe. Orduan esaten zen *Redes* programa zela Espainiako telebista publikoko programa paragarri bakarra. Agian hala zen; itsuen herrian okerra alkate. Garai batean tarteka ikusten nuen baina inoiz ez grina handiegiz.

Gabon gaua eta Urte berri egunaren ondorengo egun gogaikarri horietako batean telebista ipini eta hara non zegoen aipatu programa aspaldiko partez. Egiteko askoz hoberik ez nuenez —egiatan, eduki banuen, baina ez nuen neke handiegirik behar

MARC CAMPA



Beñat Sarasola



Urkiza



Padroin

izan neure burua engainatze-ko— eta adiskide batek noiz edo noiz programan agertutako kontuak aipatzen zizkidanez kartsu, saioa ikustea deliberatu nuen. *Crear hoy las escuelas de mañana* (Gaur sortu biharko eskolak) izena zuen eta etorkizuneko balizko eskolei ziharduten, gaur egungo Bartzelonako eskola

hipermoderno bat —ez dut izena aipatuko, aski propaganda egin baitzioten saioan— oinarri hartuta. Tartean, Richard Gerver “hezitzaile eta heziketa-sistemen aholkularia”ri egindako elkarrizketa zegoen. Bada, laburtzearen, diskurtso ustez zientifista baten izenean mezu ultraliberalak ziren etengabe nagusi, dena egun inposatu den kalaka moderno higuin garri horretan: lidertza, emozioen kudeaketa, kontsumitzaileak —ikasleei buruz hitz egiteko—, ikasgela adimendunak, eta abar. Bartzelonako eskola pribatu —esan gabe doa— horretan askatasunean oinarritutako hezkuntza eta “humanismo kristauaren balio oinarritzkoak” sustatzen dira. Ikasgelak ordenagailuz beterik daude eta haurrak eskola-uniformez janzten dira. Deigarria egin zitzaidan eskolako arduradunetako batek “mundu erreala” esapidea zenbatetan erabiltzen zuen, eta aldiro “merkatua” edo “kapitalismoa” hitzengatik alda zitekeelako itxura hartu nion.

Atentzioa eman zidana izan zen nola saltzen den lotsagabeki “zientziaren eta objektibitatearen pedigriarekin hezkuntza” eredu zehatz bat. Ez da kontu berria, baina beste

behin konproba zitekeen nolakoa den zientziaren botere politikoa, eta zehazkiago, ustez egia biribilak botatzera dedikatzen den programa batena. Nola hasiko zara zalantzan jartzen balizko zientzialari eta aditu horiek guztiek diotena? Beraiena omen egia. Eta politika horretan sartzea bazterrak nahastea da, hezkuntza bezalako gizarte gaiez mintzo badira ere. ■

Deigarria egin zitzaidan eskolako arduradunetako batek ‘mundu erreala’ esapidea zenbatetan erabiltzen zuen, eta aldiro ‘merkatua’ edo ‘kapitalismoa’ hitzengatik alda zitekeelako itxura hartu nion